

## Gurasoentzako gutuna

Guraso agurgarriok,

Ongi etorri *My Home Booklet*-era! **Kid's Box 2**-ko unitate bakoitza eskolan bukatu ondoren, zuen seme-alabak *My Home Booklet* etxera eramango du ikasi duena zuei erakusteko.

Lagundu ahal izateko, ez da beharrezkoa ingeleseko maila altua izatea. Garrantzitsuen, egin duenagaitik interesa erakustea eta beharrezkoa denean laguntza ematea da. Honek bere ikasketa prozesuari mesede egingo dio.

*My Home Booklet*-eko 12 irakasgaietako bakoitzak hurrengo jarduerak barrneratzen ditu:

- 1. jarduerarekin**, irakasgaiko hiztegi garrantzitsuen praktikatzen da, eta
- 2. jarduerarekin**, gramatika. Garrantzitsua da umeak egin beharrezkoa ulertzen duela ziurtatzea eta modu autonomoan lan egitera bultzatzea. Ariketak amaitzen dituen heinean, erantzunak irakurtzeko eta beharrezkoa denean marrazkiak seinaltatzeko eskatu. Akatsen bat dagoela ohartuz gero, ez esan berehala, izan ere, ozenean irakurriz askotan bera bakarrik ohartuko da akatsaz. Horrez gain, gaiarekin zerikusia duten galderak egin ahal dizkiozue ingelesez edo berari buruz hitz egitera animatu dezakezue, egoki denean.
- 3. jarduerarekin**, irakasgaiko komikiarekin edo abestiarekin lan egiten da. Komikiaren irudiak ordenatzeko eta gero bere hitzekin kontatzeko eskatuko zaio, edo bestela, abestiari falta zaion hiztegia osatzeko eskatuko zaio eta gero abestu dezala. Abesti eta komiki guztiak orrialde honetan ikus ditzakezue: [www.kidsboxapps.es](http://www.kidsboxapps.es) edo Activity Book-aren CD-Rom-ean.
- 4. jarduera** autoebaluazioko ariketa bat da. Zuen seme-alabarekin irudiak begiratu eta atal bakoitzeko orrialdearen beheko aldean dauen esaldiak irakurri "I can...". Eskaiozue esaldiak egiazkoak diren esateko, eta horrela izatekotan, aurpegi irribarretsuak marrazteko. Kontuan izan, une honetan umeari iruzkin positiboak egitea, garrantzitsua baita berarentzat bere aurrerapenaz ohartzeko.



# Kid's Box

**Oharra:** *My Progress*-en orrialdearen beheko aldean parentesi artean agertzen diren zenbakiak landutako oinarriko konpetentziak adierazten dituzte, Lehen Hezkuntzako kurrikuloak eta Europako Kontseiluak ezartzen duen era berean.

- 1 Ahozko komunikazioa
- 2 Gaitasun matematikoa eta oinarriko gaitasunak zientzia eta teknologian.
- 3 Gaitasun digitala
- 4 Ikasten ikastea
- 5 Hiri eta gizarteko gaitasunak
- 6 Iniziatibazko zentzua eta espiritu ekintzailea.
- 7 Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

**5. jardueran**, zuen seme-alabak ikasitako hizkuntza pertsonalizatuko du. Hau da, bere bizitzarekin erlazionatutako zerbait marraztuko du, eta bigarren hiruhilekotik aurrera, horren inguruan idatziko du.

Azkenik, *My Home Booklet*-ek amaieran Picture Dictionary bat du, hau da, irudizko hiztegi bat, ikasturteko hiztegi guztia errepasatzeko.

*My Home Booklet 2*-en zuen seme-alabarekin batera lan eginez ondo pasatzea espero dugu!

Zuen seme-alabaren ingeleseko irakaslea.

